

BILBO ZAHARRA. Berregokipenaren Aldeko Mahaiaren batzarrean ezagutu ziran neurriak

Laguntasuna jasoko dabe Gorteak kalean etxe barik geratu ziranek

Udalak neurri gogorrak hartu behar izan zituan, ugazabek etxea hondatzen itxi ebelako

Iñigo Bilbao

Udalak laguntasuna emongo deutse joan dan astean Gorteak kalean non lo egin barik geratu ziran bizilagunei. Etxea hondatuta egoala egiaztatu ostean, eraikina hutsitzeko agindua emon eben udal agintariek. Eguaztenean, agindua beteteko Gorteak kaleko 28. atariaren aurrean bildu ziran udaltzainak eta ertzainak. Lau familik kanpora urten eben arazo barik, baina besteek uko egin eutsien aginduari, barruan geratu ziran.

Areinegun, Bilbo Zaharraren Berregokipenaren aldeko Mahaiaren, udal ordezkariak zeintzuk neurri hartuko diran azaldu eutsien auzoko taldeei. Batzarrean esan eutsieenez, Udalak hainbat neurri hartu ditu dagoeneko kalean geratu ziranen aterpea eskaintzeko.

Azaldutakoaren arabera, maiatzaren 9an Surbisa eta Udalaren gizarte zerbitzuetako ordezkariak alkartu ziran, eta familia bakotxari bere egoerearen arabera urtenbidea eskaini eutsien: Gimnasialekua kaleko etxebizitzetara barritetara eutsien bitartean hor bizi zan familia, euren etxera bueltauko da, eta, bitartean, Gizartekintza Saileko laguntza jasoko dau.

Seme bigaz kalean geratu zan andreari, Udal Etxebizitzak alkartean eskatuta eukien etxea emongo deusie. Adineko andrazko batek be eskatuta eukan etxebizitzetara, baina ez zituan beharrezko baldintzak beteten. Halandabe, laguntasuna jasoko dauela aurreratu eben udal ordezkariak. Bakarrik bizi zan gizon bat be kalean geratu zan, baina, lagun baten etxera joan da bizi izatera, eta ez deuto laguntasunik eskatu Udalari.

Batzarrean azaldu ebenez, Surbisako teknikoak aspaldi hartu zituen etxe horren inguruko neurriak, baina eraikinaren ugazabek ez eben kasurik egin. 1998.eko zemendian, hezetasunagaitik habeak eta zutabeak ustelduta egozala ikusi ostean, neurriak hartzeko agindu eutsen jabeek. Tarte horretan ezusteko batek arazoa areagotu egin eban: etxe barruan sua bizitu, eta horren ondorioz izandako sutea amatetako suhiltzaileek erabilitako urak handitu egin eban hondamena.

Eraikinean neurriak hartzen ez zirala ikusirik, igaz, urte



XOUSE SIMAL

Hezetasuna dala eta, Gorteak kaleko etxearen zutabeak ustelduta dagoz, eta eraikina bera hondatuta.

URAZURRUTIAKO KAIA

Obrak hasi dira

Martitzenean hasi ziran Urazurrutian kaia hondoratu zanean, orain hiru aste, kalteak izan zituan etxea finkatzeko beharrak. Obrea CIMSA enpresek egingo dau, eta lau aste emongo ditu beharrean.

Horren ostean hasiko da Portuko Agintaritzetara kaiko zuloa estaltzen. Horretarako, beste hiru hilabete behar izango ditue beharginek. Bilbo Zaharraren Berregokipenaren aldeko Mahaiaren batzarrean udal ordezkariak azaldu ebenez, konpondu dabe dagoeneko bizilagunen egoerea. Euren etxebizitzetara bueltau arte, hiru familia Udalak alokatutako beste horrenbeste etxebizitzetara bizi-ko dira; bakarrik bizi ziran lau auzoko —erretirau bi, eta neska gazte bi— hotelean jarraituko dabe, eta beste neska bat lagun batzuen etxean aur-



XOUSE SIMAL

Lau hilabete barru amaituko dira obreak Urazurrutia kaian.

kitu dau aterpe. Udalak laguntasuna emongo deuto azken horri etxeko gastuak ordaintzeko.

Eraikinean egozan negozioei jagokonez, *Bizkaia*-k aurreratu eban lez, uleapaindegiko jabeek lokala aurkitu eben hortik gertu, eta tabernako nagusiari soldatea or-

dainduko deuto Udalak, haren diru sarrerak zenbatekoak ziran egiaztatu ostean.

Batzarrean, bestalde, Bilbo Zaharreko 8. atariko bizilagunek abisua emon eutsien udal ordezkariari, Mirivillako obretako kamioiak pasetan diranean etxea asko mogitzen dala-eta, bildur diralako.

amaieran, Udalak 600.000 pezetako isuna ipini eutsen etxearen ugazabei.

Batzarrean aitatu zanez, sarri gertatu izan dira holakoak: maizterrak bota, etxea hutsitu eta espekulau ahal izateko, jabeek ez dabe ezer egiten eraikina hondatuta geratzen dan

arte. Egoera horretara ailegau aurretik, Udalak neurriak hartu behar dituala esan eutsien auzoko taldeek udal ordezkariari.

Horreek erantzun ebenez, legeak eskuak lotzen deutoz Udalari. Izan be, Eraikinak Apaindu eta Zaintzeko Legean finkazen dan prozedura bete

behar da, eta horren arabera, urte bi pasetan dira, batez besteko, Udalak arazoan esku hartzeko aukerea daukanerako.

Horixe da kasu horretan gertatu dana, Surbisak aspaldi agindu zituala hainbat neurri, baina orain arte ezin izan daue-la berak, zuzenean, ezer egin.

UR PARTZUERGOA

Basauriko hodi biltzaile biak egiteko 3.700 milioi pezeta gastauko ditue

Erredakzioa

Ur Partzuergoak agindu ditu dagoeneko Nerbioi-Ibaizabal sarearen Urbi-Plazakoetxe eta Urbi-San Miguel tarteetako hodi biltzaileak egiteko obrak. Danetara, 3.700 milioi pezetako inbertsinoa izango da: 2.480 milioi eta 1.217 milioi, hurrenez hurren. Lehenengo tarte, Urbi-Plazakoetxe, Tecsa SA eta Auxiliar de Voladuras SA enpresek egingo dabe 31 hilabeteen.

Hodi biltzaile horrek 25.500 herritarren hondakin urak bilduko ditu hasiera baten, baina gero Basaurin, Zaraton eta Galdakaoko zati baten (Usansolo eta Erletxe) bizi diran 60.000 herritarren urak bilduko ditu.

Urbi-San Miguel tarte egiteko, bestalde, urte bi izango ditu Necso Entrecanales Cubiertas SA enpresek. Hodia ipinteko, 1.196 metro luzerako zuloa egin beharko dabe hatxean. Hodi hori izango da Nerbioiko biltzailearen lehenengo zatia, eta hiru luzapen egin ostean, Arrigorriaga eta Ugako hondakin urak bilduko ditu.

BILBO

Zozketa bidez aukeratuko ditue udako kirolaldian parte hartuko daben gazteak

Erredakzioa

Bilboko Udalaren Hezuntza, Gaztedia eta Kirola sailak zozketa bidez aukeratuko ditu garagarria eta abuztu bitartean egingo diren kirol ekitaldietan parte hartzeko aukerea izango dabenak.

Hiru kirol programa berezi antolatu ditu Udalak, eta danetara, uriburuko 350 gazte izango dira parte hartuko dabenak, 8 eta 17 urte arteko gaztetxoak, hain zuzen.

Ekimen horretan parte hartu gura dabenek, hilaren 21, 22 edo 23an izena emon beharko dabe Bilboko edozein auzotako barruti kontseiluan.